



AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 12koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 22. artikuluan xedatzen du estatu kideen betebeharra dela Europar Batasunaren finantza-interesak babestea, eta neurri egokiak hartzea iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeko.

Bestalde, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duenak, 6. artikuluan eskatzen du iruzurraren aurkako neurrien plan bat idaztea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kudeatzen dituen erakunde bakoitzarentzat, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzen direla bermatzeko.

2022ko martxoaren 29an egindako bilkuran, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen onartzea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana.

Erabaki horren bosgarren apartatuak Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari eskuordetzen dio eskumen hau: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planean egin daitezkeen aldaketak onesteko eskumena».

Jatorrizko testua birritan aldatu da. Lehenengoan, Planaren aplikazio-eremua egokitzeko, ez dadin nahitaezkozkatat jo Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa-funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-administrazio eta erakunde publikoek aplikatzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren araudiari jarraituz onartutako iruzurraren aurkako plan bat badute. Bigarrena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean jarri ondoren. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten dirulaguntza- eta kontratazio-prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoa ezarri da, Espainiako Zerga Administrazioiko Estatu Agentzian egoitza duen *data mining* tresna informatiko batean oinarrituta.

Kontrolaz arduratzen diren organoen –hala nola Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorra (IGAE), Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA) eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoa (OCE)– gomendioak kontuan hartuta, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei,



finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana hirugarren aldiz aldatu behar da, bai iruzur-arriskuaren autoebaluazioak egiteko eta onartzeko prozedura eguneratzeko –horietan diziplina antzeko talde batek parte hartuko du–, bai interes-gatazkaren eta finantzaketa bikoitzaren ataletako prozesu batzuk ere.

Azaldutakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Aldatzea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana.

Bat. Aldatu egiten da «3. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak» apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak

3.1 Testuingurua

Planak iruzur-arrisku nagusiei heltzen die, eta horretarako aintzat hartzen ditu iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena, eta ziurtatzen du inplikaturako alderdi guztiek, barnekoek (administratzaileek, kudeatzaileek eta kontrolatzaileek) zein kanpokoek (onuradunek eta gizarteak, oro har) ondo ulertzen dituztela beren erantzukizunak, betebeharrak eta, hala badagokio, eskubideak, iruzurrari aurre egiteko planteamendu koordinatu batean oinarrituta.

Iruzur-arriskuaren ebaluazioa, prebentzio- eta detekzio-neurri egokiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, foru-aldundiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalek une egokian egindako ikerketa koordinatua konbinatuz gero, nabarmen murriztuko da iruzur-arriskua, eta, gainera, disuasio-metodo garrantzitsua izango da.

3.2 Prebentzio-tresnak

IRUZURRAREN AURKAKO BORROKAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Iruzurraren aurkako neurrien plan hau aplikatu behar duten sektore publikoko erakunde guztiek iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzional bat sinatuko dute eta beren webgune instituzionalean argitaratuko dute. Adierazpen horretan, iruzurraren aurkako borrokan estandar etiko gorenak lortzeko konpromisoa jaso behar dute, argi eta irmo.

I. eranskinean, iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzional bat erantsi da, inplikaturako erakundeek neurria errazago bete dezaten.

LAGUNTZEN JAKINARAZPENETAN IRUZURRAREN AURKAKO KONPROMISOA



Laguntzen azken onuradunek berariaz adierazi beharko dute konpromisoa hartzen dutela betetzeko Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak, bai eta plan honetan jasotakoak ere. Konpromisoa formalizatuko da laguntzen jakinarazpenean eta adjudikaziodunek sinatu beharko duten onarpen-agirian.

Kontratazioen kasuan, nahitaezkoa izango da Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztea.

UNITATE, ZERBITZU EDO ORGANO ARDURADUNA

Plan hau aplikatu behar duten erakundeek izendatu beharko dute dokumentu honetan jasotako xedapenak betetzeaz arduratuko den unitate, zerbitzu edo organoa. Arduradunak iruzurraren ebaluazioa egingo du, iristen diren salaketak aztertuko ditu, iruzur edo ustelkeria izan daitezkeen egoerak ebaluatu eta, hala badagokio, dagozkien erakundeei jakinaraziko dizkie, eta neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

ARRISKUAREN ERAGINAREN ETA PROBABILITATEAREN HASIERAKO EBALUAZIOA

Plan hau aplikatu behar duten erakundeek egingo duten iruzur-arriskuaren ebaluazioaren helburu nagusia honako hau da: Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egin diezaieketen iruzur-arrisku jakin batzuk edo iruzur-egoera ohikoenak gertatzeko probabilitatearen eta horren inpaktuaren autoebaluazioa egitea ahalbidetzea, eta, gaur egun erakundeak beren eskumenen esparruan ezarrita dauzkan kontrolak aplikatu ondoren oraindik izan daitezkeen arriskuak murrizten lagunduko duten kontrol aringarriak egitea.

Organo kudeatzaile bakoitzak egin beharko duen arriskuaren ebaluazio proaktibo, egituratu eta espezifikoa bat da. Iruzurra jasateko sentikorrenak diren prozesuaren alderdiak identifikatzeko, horiek kontrolatzeko eta hautemandako arrisku-mailaren arabera beharrezkoak eta proportzionalak diren neurriak hartzeko balioko du.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa autoebaluazio-prozesu baten bidez egiten da.

Autoebaluazio-prozesua.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa egin aurretik, HFP/1030/2021 Aginduan jasotako autoebaluazio-testa eta arriskuaren kalkulua egingo da –dokumentu honen **II. eranskinean** jasota dago–.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera egingo da, «Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzean iruzurraren aurkako neurriak aplikatzeko gida» dokumentuan proposatutako autoebaluazio-tresna erabiliz¹.

Tresna hori aplikatuta, alde batetik, jarraian zehazten diren kudeaketa-prozesuetako balizko arrisku espezifikoak identifikatu nahi dira, autoebaluazioaren arabera erakundeak dagoeneko aplikatzen dituen kontrolez gain beste batzuk aplikatzea

¹<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Documents/20220224%20Gu%C3%ADa%20Medidas%20Antifraude.pdf>



eskatzen dutenak, iruzurrezkoak izan daitezkeen jardueren inpaktu-probabilitatea maila onargarrietara murrizteko, eta, bestetik, hautemandako iruzur-arriskuak arintzeko hartu beharreko neurri eraginkor eta proportzionalak hautatu:

- Onuradunak hautatu.
- Eragiketa finantzatuak gauzatu eta egiaztatu.
- Kontratuak/dirulaguntzak adjudikatu.
- Ziurtatu eta ordaindu.

Arriskuak identifikatzeko, lan kolektibo etengabea egingo da (aurretiatzko esperientzia, arriskuen inbentarioa), arriskua deskribatu, orokorra edo espezifikoa den definituz, bai eta zer arlotan/prozesutan eragiten duen, nor egon daitekeen tartean eta zer arrisku mota dagoen: barruko/kanpoko kolusioa.

Autoebaluazio hori diziplina anitzeko ebaluazio-talde batek egin eta kudeatuko du, eta bertan askotariko ardurak dituzten sailetako langileek parte hartuko dute. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Iruzurraren Aurkako Unitateko kideek prestatuko dituzte iruzur-arriskuaren autoebaluaziorako ereduak. Unitate hori honako hauek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako sailetako SEMaren kontrol-teknikariek, EAEko sektore publikoko erakundeetako ordezkariak eta Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzako ordezkariak. Iruzurraren Aurkako Unitateak ebaluazioa egin ondoren, Eusko Jaurlaritzaren SEMaren ebaluazio eta jarraipenerako Sailarteko Batzordeari helaraziko dio emaitza. Batzorde hori honako hauek osatzen dute: sailetako organo kudeatzaileak, Aurrekontu Zuzendaritzak, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak, Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak, Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetzak eta Kohesio Politikako eta Europako Funtsetako Zuzendaritzak. Sailarteko Batzordeak Iruzurraren Aurkako Unitateak egindako ebaluazioa aztertuko du, eta, hala badagokio, iruzur-arriskuaren autoebaluazioen ereduak onartuko ditu. Ereduak onartu ondoren, sailek eredu horiek beren prozedura eta kontroletara egokitu beharko dituzte, eta organo kudeatzailearen arduradunak sinatuko ditu.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa **funtssezko urrats metodologiko** hauetan oinarrituko da:

1. Mota jakin bateko iruzurra gertatzeko arriskuaren zenbatespen kuantitatiboa, haren probabilitatearen eta inpaktuaren (arrisku gordina) balorazioan oinarrituta.
2. Gaur egun arrisku gordina arintzeko abian dauden kontrolen eraginkortasuna baloratzea.
3. Arrisku garbiaren balorazioa, abian diren kontrolen eraginkortasuna eta eragina kontuan hartu ondoren, hau da, egoera, ebaluazioaren unean den bezala (hondar-arriskua).
4. Planifikatzen diren kontrol aringarriak arrisku garbiaren edo hondar-arriskuaren gainean izan dezaketen eragina



baloratzea.

5. Xede-arriskuaren kalkulua, hau da, kontrol eraginkorrak abian jarri ondoren kudeaketa-agintaritzak onargarriztat jotzen duen arrisku mailarena.

Irailaren 29ko HFF/1030/2021 Aginduaren 6.5.c) artikuluari jarraituz, iruzur-arriskuen autoebaluazioa aldi behin egin eta berrikusi behar da, bi urtean behin edo urtean behin, hautemandako iruzur-arriskuaren arabera eta, edozein kasutan, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo kudeaketa-prozeduretan edo horiek gauzatzen dituzten langileetan aldaketa nabarmenak daudenean.

Identifikatutako arrisku-maila oso txikia bada eta aurreko urtean iruzur-kasurik atzeman ez bada, autoebaluazioa bi urtean behin soilik berrikusiko da.

Agindu berean, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko neurrien artean, besteak beste, kudeatutako neurri guztietarako arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezartzea jasotzen du, eta horren ebidentzia jasotzea, iruzurra jasateko arrisku handiena duten prozesuaren alderdiak bilatzeko eta bereziki kontrolatzeko, honako oinarri honen gainean:

- a. Iruzurra jasateko arrisku handiena duten neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko dituztenak, kontrol konplexuak dituztenak, etab.
- b. Egon daitezkeen interes-gatazkak identifikatzea.
- c. Barne-kontrolako sistemaren aurretiazko lanen emaitzak (ikus Planaren 3.3 apartatua).
- d. Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontu Auzitegiaren ikuskaritzen emaitzak.

Nolanahi ere, kudeatzaile guztientzako barne-kontrolako prozesuak ezartzeko, Estatuko eta Europako agintariak gai horri buruz emandako araudia eta gomendioak ez ezik, SEEPerako berariazkoak ere kontuan hartuko dira.

ETIKA- ETA JOKABIDE-KODEA

Euskal Autonomia Erkidegoak Erakunde Harremanetarako sailburuordearen azaroaren 22ko 67/2016 Ebazpena onartu zuen, zeinaren bitartez xedatzen baita argitara eman behar dela Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bategina onartzen duena eta kode horretan aurreikuspen berriak sartzen dituena. Kodeari lotutako funtzio eta eskumenak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren menpeko Etika Publikorako Batzordeari dagozkio.

Hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek etika-kodeak dituzte: 477/2015 Erabakia, irailaren 3koa, Diputatuen Kontseiluarena, Arabako lurralde historikoko sektore publikoko kargu publikoen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodea onartzen



duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren Europako funtsen kudeaketan arriskuak kudeatzeko Etika eta Jokabide Kodea. Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea.

Plan hau aplikatu behar duten erakundeek beren zerbitzupeko langileentzako etika-kode bat egin beharko dute, halakorik ez badute. Erakundearen barruan SEEParen betearaztean parte hartzen duten pertsona guztiak atxiki beharko zaizkio kode horri, kargudun publikoak izan ala ez.

Etika eta Jokabide Kodearen helburua honako hau izango da: iruzurgileei asmoa kentzea, agintariak eta inplikaturako langileak iruzurrari aurre egiteko ahalik eta konpromiso handiena hartzea lortzea eta zuzentasuna, objektibotasuna, kontuak ematea eta zintzotasuna sustatzea.

III. eranskinean, ezartzen den etika- eta jokabide-kodeak izan behar dituen gutxieneko baldintzak zehazten dituen eredu bat erantsi da. Etika- eta jokabide-kodea egiteko funtseko oinarriak honako hauek izango dira: EAEko administrazioetan indarrean dauden kargudun publikoentzako etika-kodeak, eta, horiekin batera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak zerbitzari publikoei eskatzen dizkieten balio etikoak.

PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak administrazio publiko guztien eskura jarriko ditu iruzurraren aurka borrokatzeko politikei buruzko prestakuntza-jarduerak, teorikoak zein praktikoak, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzaturako azpiproiektuak eta jarduerak kudeatzen eta gauzatzen esku hartzen duten langileak jarduera horietan parte har dezaten sustatuko da.

Prestakuntza-ekintzak hierarkia-maila guztietara bideratu behar dira, eta bilerak, mintegiak, lantaldeak eta abarrak barne hartuko dituzte. Ekintza horiek honako hauek izango dituzte ardatz: arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa, kontrol espezifikoak ezartzea, iruzurrik antzemanaz gero jarduteko bidea, erreferentziarako kasu praktikoak, etab.

3.3 Detekzio-tresnak

BARNE-KONTROLEKO SISTEMA

Barne-kontrol sistematikoak egingo dituzte SEMaren funtsen administrazioan inplikaturako organo kudeatzaile eta betearazleek, edozein anomalia, irregulartasun edo iruzurrezko jarduera detektatzeko.

Kontrol horien ondorioz, arrisku-maila dela-eta beharrezkotzat jotzen den kasuetan, txostenak egingo dira, eta bertan islatuko dira aldi jakin batean antzemandako irregulartasun, iruzur susmo eta iruzur guztiak, kontrol-agintaritzak ezarritakoaren arabera. Txostena egiteko, egindako eta egiten ari diren arriskuen autoebaluazioetan lortutako emaitzak hartuko dira abiapuntutzat.



Barne-kontrolako organo independenteek (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, kontu-hartzailetzak eta aholkularitza juridikoak), *ex ante* kontrolerako eta kontratazio-mahaietan parte hartzeko eginkizunen artean, antzemandako gorabeheren berri emango diete organo kudeatzaileei eta kide anitzeko organoei, eta, hala badagokio, Kontrol Agintaritzari (II. mailako kontrola).

KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Plan hau aplikatu behar duten erakundeek komunikazio-sistema bat ezarriko dute, barne zein kanpoko kanaletan oinarritua eta jakinarazpen-mekanismo apropos eta argiez hornitua, iruzur susmoen berri emateko.

Ad-hoc ezarriko den komunikazio-sistemak, gutxienez, honako ekintza hauek jasoko ditu:

- Inplikaturako eragile guztiei eta herritar guztiei jakinaraztea IGAEk iruzurrezko portaeren salaketak egiteko kanal publiko bat duela (<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>). Kanal horretan herritar guztiek parte har dezakete, bai eta neurrian parte hartzen duen edozein pertsona fisikok edo juridikok ere.
- Inplikaturako eragile guztiei eta herritar guztiei gardentasun-atariak daudela jakinaraztea: Irekian, Eusko Jaurlaritzaren kasuan; foru-aldundien eta udalen kasuan, berriz, web korporatiboetan.
- Inplikaturako eragile guztiei eta herritar guztiei jakinaraztea iradokizunak, kexak edo salaketak modu pribatuan egiteko bide arautuak daudela. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, edonork jo dezake pribatuki Jaurlaritzara eta Etika Batzordera (<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/departments/78/proposals>). Era berean, foru- eta toki-erakundeek era guztietako kexak eta iradokizunak egiteko prozedurak ezarrita dituzte beren webguneetan.
- Inplikaturako eragile guztiei eta herritar guztiei Arartekoaren rolaren berri ematea. Haren eginkizun nagusia herritarrek Administrazioaren jarduketa desegoki edo irregularren inguruan egiten dituzten kexak, eskaerak edo kontsultak artatzea eta izapidetzea da, eta, izapidetze-prozedura horretan, dagokion administrazioari bere jardunari buruzko azalpenak eskatzen zaizkio. Ordenamendu juridikoak ezarritakoaren arabera kexaren xede den jarduera okerra izan dela erabakitzen bada, Arartekoak administrazio arduradunari okerreko jarduera aldatzeko eskatzen dio, ebazpen baten bidez, eta horretarako gomendio bat ematen dio.
- Plan hau aplikatu behar duten erakunde betearazleetako langileek Mekanismoko jarduketei buruzko salaketak jasotzeko postontzi espezifiko bat ezartzea. Salaketa horiek protokolo espezifiko baten



bidez tratatuko dira, salatzailen nortasuna babesteko. Egindako salaketak eginkizun horretara bideratutako eta horretarako bereziki kualifikatutako langileek ikertuko dituzte.

- Plan hau aplikatu behar duten erakundeetako agintariei eta langileei bai iruzur-susmoak, bai iruzurraren aurreko kalteberatasuna areagotu dezaketen ahulguneak jakinaraztea erraztea, komunikazio-ereduen bidez.
- Iruzurraren detekzioan parte hartzen duten gainerako eragileak modu koordinatu eta antolatuan informatzea: Zerbitzu Juridikoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa edo plan hau aplikatu behar duten erakundeetako bakoitzeko organo eskudunak, Estatuko Administrazio Orokorrean ikerketaz arduratzen diren erakundeak, eta ustelkeriaren aurkako borrokaz arduratzen diren agintariak.
- Erakunde erabakitzaileari edo erakunde betearazleari, kasuaren arabera, ahalik eta lasterren ematea gertatutakoaren eta hartutako neurrien berri, eta hark SEMaren ardura duen agintaritzari jakinaraztea.
- Azpiproiektuak edo jarduerak egiten inplikaturako agintariak eta/edo iruzurrezko jardunaren eraginpean egon daitezkeen guztiak modu koordinatuan eta antolatuan informatzea.
- Iruzur-kasu horiek jasotzen dituen kontrol-txostenaren laburpen bat eta erakunde betearazlearen kudeaketa-txostena zabaltzea.

ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

«Bandera gorriak» izeneko erreferentziazko adierazle multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek ohartarazten dute iruzurrezko jardura bat gerta daitekeela, eta berehalako erreakzioa behar dela ekintza bat beharrezkoa den egiaztatzeko.

Europako Batzordeak katalogo hori egiteko informazioa eman die estatu kideei. Katalogoaren berri eman behar zaie iruzur-arriskuak detektatzeko egoeran dauden langile guztiei. Bereziki, onuradunen jarduerak ikuskatzeko eginkizuna duten pertsona guztiek (adibidez, dokumentuen eta tokian bertako egiaztapenak egiten dituztenek edo bestelako jarraipen-bisitak egiten dituztenek) adierazle horiek ezagutu behar dituzte.

SEEPeko jarduerak gauzatzeko izapidetzen diren prozeduretan, kudeaketa kontrolatzeko eginkizunarekin lotuta, dokumentu honetan definitutako bandera gorri posibleen berriak dokumentatu behar dira, dagokion egiaztapen-zerrenda betez. Horretarako, organo kudeatzaileek SEEPen bidez finantzaturako jarduketak eta azpiproiektu bakoitzerako egiaztapen-zerrenda bat bete behar dute.

IV. eranskinean, «bandera gorriak» izeneko adierazleen zerrenda erantsi da, bai eta horiek egiaztatzeko zerrenda ere, iruzurrik dagoen zehazteko.

FALTSUTUTAKO DOKUMENTUAK DETEKTATZEA

Faltsututako dokumentuak² iruzur-kasu berezi bat dira, eta arreta berezia eskainiko zaio. Horiek detektatu eta zuzentzeko, administrazio esku-hartzaileek barne-kontrolak egingo dituzte, eta, horietan, kontuan hartu beharko dira, batetik, IV. eranskineko adierazleen katalogoa (bandera gorriak) eta, bestetik, merkataritza-erregistroen, nazio mailako erakundeen zein EBren datu-baseak, enplegatuen espedienteak (datuak babesteko arauak aintzat hartuz) eta datu-prospekziarako tresnak (*data mining*).

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek, foru-aldundiek eta udalek faltsututako agirien berri emango diete Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (SNCA) eta, hala badagokio, Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF). Egitateak zigortzekoak badira, agintaritza eskudunen aurrean salatuko dute egoera, kasua instantzia judizialetara igortzeko erabakia babesten duen Zerbitzu Juridikoen txosten baten bidez.

DATUEN EGIAZTAPENA ETA ALDERAKETA

Datuak babesteari buruzko legediaren mugen barruan, arriskuak ebaluatu ahal izateko datuak lortu, biltegitatu eta aztertzekeo prozesuak optimizatzeko tresnak erabiltzea, datuak sektoreko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzea, eta funtsak eman aurretik ere arrisku handiko egoerak detektatzea sustatuko dute erakunde betearazleek.

Horretarako, plan hau aplikatu behar duten erakundeetako agintariak eta langileak, barne-tresnez gain –hala nola EAEko Kontratazio Publikoaren Plataforma eta dirulaguntzen datu-baseak– datuen prospekziarako tresnak (*data mining*) erabiliko dituzte, funtsetako iruzur-arriskua identifikatzeko eta ebaluatzeko, esparru gatazkatsuenei dagokienez –esaterako, kontratazio publikoan– alerta-adierazleen bidez, eta iruzurraren aurkako neurriak diseinatzeko.

3.4 Zuzenketa- eta jazarpen-prozesuak

Usteko iruzur-kasu bat detektatu eta aurreko puntuko komunikazio-sisteman ezarritako prozeduren arabera jakinarazi ondoren (Europako Batzordearen eskakizunekin eta barne-eskakizunekin bat etorritik), organo kudeatzaileek ikerketa bat abiarazi behar den ala ez baloratuko dute, eta bidegabe jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eta dagokion akzio penala gauzatzeko ekintzak abiarazi behar diren ala ez.

HFP/1030/2021 Aginduaren 6.6 artikuluko zehaztapenen arabera, iruzur posible bat detektatzen bada edo susmo funtsatua badago, plan hau aplikatu behar duten erakundeek, eta, zehazki, organo kudeatzaileek, nahitaezko urrats hauek egin beharko dituzte:

² Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) dokumentuak faltsutzeari buruzko gida praktikoa zehazten den bezala, faltsututako dokumentu bat egia aldatu zaion dokumentu bat da. Aldaketa honakoa izan daiteke:

- Fisikoa: dokumentu bat fisikoki alda daiteke, adibidez, elementuak edo erreferentziak marratuz, dokumentua aldatzen duen informazioa eskuz gehituz, etab.
- Intelektuala: dokumentuaren edukia errealitatearekin bat ez etortzea, adibidez, emandako zerbitzuen deskribapen faltsua agertzea, txosten batean eduki faltsua, bertaratze-zerrenda batean sinadura faltsuak, etab.



- **Iruzurraren ebaluazioa eta sailkapena.** Plan hau aplikatu behar duten sektore publikoko erakundeek iruzurraren eragina ebaluatuko dute, eta, horretarako, neurrian esku hartzen duen edozeinek egindako ebaluazio-txostenetan oinarrituko dira, besteak beste.
- **Jarduera berrikustea, etetea eta/edo bertan behera uztea.** Balizko iruzur bat hautemanen gero edo horren susmo funtsatua izanez gero, berehala etengo da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzaturako azpiproiektua edo jarduketa.

Horregatik, SEP-en funtsekin finantzatu diren edo finantzatzekoak diren azpiproiektu edo ekintza-lerroen artean, iruzurrezko jardueraren eraginpean egon daitezkeen guztiak berrikusi beharko dira, bai eta esku-hartzaileek jarduera horiekin lotuta aurkeztu duten dokumentazio guztia ere eta, edozein kasutan, iruzurraren eraginpean daudenena baztertu egingo da.

- **Komunikazio-sistema.** Erakunde betearazleek konpromisoa hartzen dute iruzur posiblerik detektatuz edo susmo funtsatua izanez gero ahalik eta eperik laburrenean jakinarazteko bai erakunde interesdunei, bai inplikaturako erakundeei. Erakunde interesdunak honako hauek dira: Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF), fiskaltza eta auzitegi eskudunak. Organismo inplikatuak, berriz, erakunde betearazlea eta organo kudeatzaileak dira.

Hartu beharreko neurri zuzentzaileei dagokionez, komunikazio-sistemak honako hauek barne hartzen ditu:

- ✓ Gertakarien eta hartutako neurrien berri ematea jarduketan exekuzioa agindu dion erakundeari. Erakunde betearazle bakoitzak erakunde erabakitzaileari jakinaraziko dio auzia, eta hark agintaritza arduradunari jakinaraziko dio. Agintaritza arduradunak egokitzen jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteko eta Kontrol Agintaritzari jakinarazteko.
- ✓ Hala badagokio, gertakariak agintari eskudunei eta SNCari salatzea, balora ditzaten eta, beharrezkoa bada, OLAFi jakinaraz diezaioten.
- ✓ Informazio erreserbatua abian jarri, erantzukizunak argitzeko edo diziiplina-espedita bat hasteko.
- ✓ Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatzea, beharrezkoa bada, kasua instantzia judizialetera igortzeko erabakia babesten duen Zerbitzu Juridikoen txosten bat aurkeztuz.

- **Espedienteak berrikustea.** Agintaritza eskudunek ikerketa amaitzen dutenean, edo kasuan kasuko agintaritzei jarraipena egiteko helarazten dietenean, plan hau aplikatu behar duten sektore publikoko erakundeek zehatz-mehatz berrikusiko dituzte balizko iruzurrarekin edo frogatuarekin zerikusia duen edozein prozesu edo prozedura, eragiketa horretan eta/edo antzeko izaera ekonomikoa dutenetan sartutako espediente guztiak, eta barne-kontrolako sistemak. Gainera, iruzurraren aurkako neurriekin lotutako autoebaluazio-testaren emaitzaren txostenak berrikusiko dira (II. eranskina).

Berrikuspen horrek objektiboa eta autokritikoa izan behar du, ikerketaren ardura duten agintariekin eta agintari judizialekin lankidetzan egin behar da eta legea bete behar du.

Berrikuspenaren emaitza gisa, erakunde horiek hautemandako ahulguneei eta ikasitako ikasgaiei lotutako ondorioak azalduko dituzte, bai eta mekanismo egokiak, arduratsuak eta epe zorrotzak ezartzeko ekintza argiak ere.

- **Jasotako zenbatekoak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), baterako finantzaketa kentzea eta akzio penala.** Erakunde betearazleek eta agintaritza eskudunek onuradunek bidegabeki jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eskatuko dute, bai eta atzemandako intzidentzia identifikatuta duten espediente guztietatik Europar Batasunaren baterako finantzaketa kentzeko ere.

Horretarako, iruzurrez erabili diren EBko funtsen berreskurapenaren jarraipena egiteko prozesu zorrotzak egingo dituzte. Prozesu horiek argiak izan behar dute prozesu zibil edo penal bat bideratuko den kasuetan ere.

Bestalde, iruzurgileentzako disuasio-elementu gisa, zehapen-jarduerei ikusgaitasuna emango zaie, eta horiek aplikatzeko erabakiaren mezua indartuko da».

Bi. Aldatu egiten da «4.2 Prebentzio- eta detekzio-tresnak» apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4.2 Prebentzio-tresnak

Europako Batzordearen jarraibideei jarraituz ([https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES)), honako tresna hauek aurreikusten dira interes-gatazkek prebenitzeko eta detektatzeko:

TARTEAN DAUDEN ALDEEI INTERES-GATAZKEN MOTA DESBERDINEN BERRI EMATEA

Interes-gatazkan inplikaturaren egoera egon daitezkeen pertsonen interes-gatazka zer den, gatazka horren modalitateak, inplikazioak eta saihesteko modua jakinaraziko zaiela bermatzea. Honako hauek egon daitezke inplikaturaren:

- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta beste agente batzuk, baldin eta eginkizun horietako bat/batzuk eskuordetu bazai(zki)e.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, haien jarduketak funtsekin finantzatzeko badira eta euren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoerari erreparaturaren, honako hauek bereiz daitezke:

- **Itxurazko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak arriskuan jar dezaketenean bere eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dagoenean lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren jokabidearen, jarreraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan eraginik ez duenean).
- **Balizko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak etorkizunean, ardura ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero, interes-gatazka sor dezaketenean sortzen da.
- **Benetako interes-gatazka:** enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuaren arteko gatazka dakar, edo enplegatu publikoak interes pertsonalak ditu, eta interes horiek eragin bidegabea izan dezakete bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka bat sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean bere gain hartutako betebeharrak eta bere interes pribatuaren artean, bidegabe eragin baitezakete betebeharrak horiek betetzean.

INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

Plan hau aplikatu behar duten sektore publikoko erakundeek zerbitzura dauden eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzaturako azpiproiektuen eta jardueren kudeaketa eta betearazpenean esku hartzen duten agintari eta langile guztiak interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpen bat beteko dute.

Zehazki, eta HFP/1030/2021 Aginduaren III.C eranskinean zehazten den bezala, adierazpen hau sinatu beharko dute dirulaguntza emateko/kontratatze organoaren arduradunak, lizitazioen/oinarrien agiriak eta/edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatze batzordeetako kideak eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoak. Kontratazio txikien, hitzarmenen eta bitarteko proiektuei egindako enkarguen kasuan, espedientearen proposatu edo bultzatu duen unitatearen titularrak eta espedientearen kudeaketa edo betearazpenean parte hartzen duten guztiak beteko dute adierazpena.



Gainera, IGEA beteta aurkezteko eskatuko zaie onuradunei/kontratistei/azpikontratistei, baldin eta, laguntza emateko baldintzen barruan, balizko interes-gatazka duten jarduerak egin behar badituzte.

IGEAn, adierazpen-egileak hau adierazi beharko du:

- ✓ Parte hartzen duen administrazio-prozedurari lotutako itxurazko, balizko edo benetako interes-gatazka bat baten berri baduten.
- ✓ Luze gabe itxurazko interes-gatazka, balizko gatazka edo benetako batera eraman dezakeen zirkunstantziarik badagoen.
- ✓ Inguruabarren batek ondorio hori ateratzea eragin badezake edozein interes-gatazka potentzial berehala deklaratzeko konpromisoa hartzen duela.

Dokumentu honen **V. eranskinean**, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren (IGEA) eredu bat erantsi da.

BALIZKO INTERES-GATAZKA PREBENITZEARI, HAUTEMATEARI ETA KUDEATZEARI BURUZKO DOKUMENTUA

Neurrien plan honen **VI. eranskin** gisa, balizko interes-gatazkaren prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentu bat gehitu da. Bertan, langileei informazioa ematen zaie interes-gatazken modalitateei buruz, gatazka hori saihesteko moduei buruz eta gai horren inguruko indarreko araudiari buruz, eta interes-gatazkarik hautemanen gero jarraitu beharreko prozedura jasotzen da. Dokumentu hori plan hau aplikatuko zaien erakundeen intranetean argitaratuko da, eta hori erakundeko langile guztiei jakinaraziko zaie posta elektronikoz.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan araututako prozeduraren arabera, agindu horren 3. artikuluan aipatutako langileek IGEA espezifikoko bat sinatu beharko dute (plan honen X. eranskin gisa jaso da), HFP/1030/2021 Aginduan adierazitako IGEAz gain, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin finantzatzeko dirulaguntzak eta kontratuak prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile inpartzialak direla bermatzeko.

DATUEN EGIAZTAPENA ETA ALDERAKETA

Datu pertsonalak babesteko arauak kontuan hartuta, entitate betearazleek honako hauek erabiliko dituzte: merkataritza-erregistroetako, erakunde nazionalako eta EBko datu-baseak, administrazio- eta langile-espeditentak eta datuen prospekzio-tresnak (*data mining*).

Kontratu eta dirulaguntzei aplikatzekoa den urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren arabera, agindu horren 4. artikuluan zehazten diren eragiketen arduradunek *data mining*-a egiteko MINERVA aplikazioarekin gurutzatu beharko dituzte datuak, agindu horren 4. artikulutik 7. artikulura xedatutakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, plan honen X. eranskina (Interes-gatazkarik eza egiaztatzeko

eredua) eta XI. eranskina (Konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan, interes-gatazkaren arriskua aztertzeke hartuko diren eskaerak hautatzeko arauak) gehitu dira.

ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

«Bandera gorriak» izeneko erreferentziako adierazle multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek ohartarazten dute interes-gatazka bat gerta daitekeela, eta berehalako erreakzioa behar dela ekintza bat beharrezkoa den egiaztatzeke.

Iruzurra detektatzeko erabilitako katalogoak berak (IV. eranskina) interes-gatazken modalitateak hautemateko adierazleak ere baditu. Adierazle horiek bat datoz OLAFek arlo horretan duen gida praktikoarekin.

Etengabeko eta aldizkako ebaluazioa

Adierazleetan oinarrituta, etengabeko monitorizazioa egingo da egon daitezkeen interes-gatazkek saihesteko eta goiz detektatzeko.

- Langileek galdetegiak beteko dituzte aldian behin, interes-gatazka sortzeko aukeraren aurrean alertan jarraitzen den ebaluatzeke.
- Erabakiak hartzen parte hartzen duten eta, beraz, interes-gatazkan sar daitezkeen langileek kontrol-zerrendak beteko dituzte».

Hiru. Aldatu egiten da «5.2 Prozesuak eta tresnak» apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«5.2 Prozesuak eta tresnak

AUTOEBALUAZIOA

Erakunde betearazle bakoitzak autoebaluazio-galdeketa bat beteko du, gutxienekeo estandar bat betetzen dela bermatzeko. Autoebaluazio-galdetegia aldian-aldian errepikatuko da, emaitzen txostenetan hautemandako arriskuaren arabera.

Dokumentu honen II. eranskinean estatu-laguntzen erregimenaren bateragarritasun-test bat erantsi da, finantzaketa bikoitza saihesteko (HFP/1030/2021 Aginduaren II.B.6 eranskina).

Gainera, printzipio hori betetzen dela bermatzeko, HFP/1030/2021 Aginduaren III.D eranskina beteko da SEEPak finantzatutako tresna juridiko bakoitzerako.

KUDEAKETA-AITORPENA ORDAINKETA-ESKAERAN

SEEPean Europako Batzordeari hainbat ordainketa-eskaera egitea aurreikusten da.

Eskaera horiek mugarriak eta helburuak betetzearekin lotuta daude, eta plan hau aplikatu behar duten erakundeek aitorten hori egingo dute, **VII. eranskinean** jasotako ordainketa-eskabideko kudeaketa-aitortenaren ereduaren bidez.

Kontrol-organoek gainbegiratuko dute SEEParen jarduerak gauzatzen dituzten organoek eta SEEParen jarduerak gauzatzeko ardura eman zaien beste erakunde batzuek

iruzurraren prebentzioari buruzko kudeaketa-aitorpen hori aurkezten dutela. Aldizkakotasuna aurreikusitako egutegira egokituko da.

BARNE-KUDEAKETA ETA -KONTROLA

Plan hau aplikatu behar duten erakundeek kontrol-sistema propio bat erabiliko dute funtsak aipatutako araudiaren arabera kudeatu direla ziurtatzeko, finantzaketa bikoitza saihestearren (I. eta II. mailak). Gainera, IGAEk, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin lankidetzan (III. maila), berariazko auditoriak egin ahal izango ditu, estatu-laguntzarik jasotzen ez dela eta finantzaketa bikoitzik egiten ez dela egiaztatzeko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak finantzatutako tresna juridiko guztiek honako betebeharrak hauek ekarriko dituzte: onuradunak kostu bera finantzatzen lagundu duen beste edozein funtsi buruzko informazioa eman beharko du, eta, gainera, onuradunek/kontratistek finantzaketa bikoitzik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak finantzatutako dirulaguntzen kasuan, erakunde emaileek funtsen azken onuradunei buruzko informazioa jasotzen duen Dirulaguntzen Datu-base Nazionala (BDNS) kontsultatu eta organo kudeatzaileek egiaztatu beharko dute, sistematikoki, finantzaketa bikoitza saihesteko, bai eta EAEko Dirulaguntzen Erregistro Orokorra ere. Kontsulta horiek justu emakida erabaki aurreko unean eta obligazioa onartu eta ordainketa proposatu aurreko unean egin behar dira.

Konkurrentzia masiboko dirulaguntzen deialdietan, onuradunen kopurua 100etik gorakoa bada, onuradun guztien gaineko laginketa bat egin beharko da, laginak hautatzeko metodologia bati jarraituz.

Barne-kontrolaren barruan, kontuan hartuko dira neurrian esku hartzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok egin ditzakeen arrisku handieneko jarduerak».

Lau. Aldatu egiten da «II. eranskina - Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea», eta honela geratzen da idatzita:

«II. eranskina - Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea

Autoebaluazio-testa eta arriskua (HFP/1030/2021 Agindua, II. eranskina):

- A. Xedea eta prozedura.
- B. Testa
 - 1. Funtsezko elementuak.
 - 2. Kudeaketa-kontrola.
 - 3. Mugarriak eta helburuak.
 - 4. Ingurumenaren gaineko kalteak.
 - 5. Interes-gatazka, iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioa.
 - 6. Estatuko laguntzen araubidearekin bateragarri izatea eta finantzaketa



bikoitza saihestea.

C. Arriskuaren zenbatespena: balorazio-taula.

II.A eranskina **Xedea eta prozedura**

SEEPa onartzeak berekin dakar, kasu batzuetan, administrazio publikoek aplikatutako prozeduretan erreferentzia ohikoak eta sistematikoak ez diren printzipio eta irizpide batzuk sartzea.

Horrez gain, osagai bakoitzeko mugarren eta helburuen garapenean inplikaturako erakundeen irismenak eta erakundeak askotarikoak izateak eskakizun berriak ere planteatzen ditu; bereziki, kudeaketa-praktiken homogeneotasuna.

Testuinguru horretan, egokitzen da SEEP osoan estandar bat aplikatzeko erreferentzia batzuk zehaztea. Horretarako, hainbat alderdi kritiko autoebaluatzeako eskema bat diseinatu da, Europako Erkidegoko araudiak ezarritako eskakizunak hobeto betetzen direla ziurtatzeko. Horren oinarria galdera-multzo bat da; nahiko galdera errazak, baina oso garrantzitsuak, termino bakoitzaren azpian dagoen eskakizunari dagokionez, kontuan hartuta bai proiektuak eta azpi-proiektuak kudeatzeko, bai aurreikusitako emaitzak lortzeko oinarritzko bermeak direla.

Analisis bi bloketan banatuta dago:

– Lehena funtsezko alderdiena da. Horren helburua funtsezko alderdiak estalita dauden edo ez identifikatzea da, termino erradikaletan; hau da, egitura organikoan eta prozeduretan aintzat hartzen diren ala ez. Itxuraz agerikoa da praktikan ezinezkoa dela ezarritako eskakizunak betetzea baliabide espezifikoak esleitu eta prozedurak kudeaketa-eremura egokitu gabe. Horregatik, erantzunak modu bitarrean planteatuta daude.

– Bigarren blokeari dagokionez, kritikotzat jotzen den alderdi bakoitzari buruzko zenbait test prestatu dira. Helburua da ahalik eta modu errazenean mailakatzea zenbateraino egokitzen diren egitura organikoa eta eskuragarri dauden prozedurak beharizanetara, eta hausnarketa bultzatzea SEEParen eskakizunei behar bezala heltzeko *a priori* erabakigarriak izango liratekeen alderdiei buruz.

Autoebaluazio-prozedura arriskuaren kuantifikazioarekin ixten da, planteatzen diren galdera-sorten erantzunetan oinarrituta, analisis balio bakar batean laburbilduz. Helburua «arrisku txikia» izatea da.

Helburu hori lortzen ez bada, azterketaren xede den erakundeak neurriak hartu beharko ditu, testetako galderen oinarrian dauden eskakizunetan hobetzeko.

Mugarriak eta helburuak lortzeko garatu beharreko jarduerak Kontrol Agintaritzak, Estatuko Administrazioako Esku-hartzaitza Nagusiak, Kontuen Auzitegiak, Europako Batzordeko Zerbitzuek eta EBko Kontuen Auzitegiak berriki ditzaketela kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen da autoebaluazioa aldiro egitea, gutxienez urtean behin, eta horren emaitza sisteman txertatzen den dokumentazioaren parte izatea. Azkenik,



SEEPeko osagaiak garatzen dituzten proiektuen eta azpi-proiektuen gauzatzean jardunbide egokiak egiaztatze erreferentzia bat da, beraz, Ministro Agindua indarrean jartzen denean, lehen autoebaluazioa egingo da, eta, hala badagokio, kudeaketa-eredua eraginkorra izateko beharrezko neurriak hartuko dira.

II.B.1 eranskina

Funtsezko alderdien testa

Ebaluazio-eremua

Organoa/Erakundea:

Ebaluatzailea:

Kargua:

Data:

FUNTSEZKO ALDERDIAK (urratzen badira, berehala zuzendu behar dira)	Ba i	Ez	Ez dagokio
A. Zure ustez, betetzen al duzue kudeaketa kontrolatzeko/barne-auditoriak egiteko funtzioa?			
B. Aplikatzen al dituzu mugarri, helburu eta proiektuen jarraipena egiteko prozedurak?			
C. Erabakiak hartzeko prozesuetan, printzipio hauek sistematikoki ebaluatzen al dituzu?	–	–	–
I. Nahi gabeko ingurumen-inpaktuak (<i>Do no significant harm, DNSH</i>).			
II. Etiketatze digitala eta etiketatze berdea.			
III. Interes-gatazka, iruzurra eta ustelkeria.			
IV. Finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.			
V. Estatuko laguntzen araubidea.			
VI. Onuradunen, kontratisten eta azpikontratisten identifikazioa.			
VII. Komunikazioa.			

II.B.2 eranskina

Arlokako analisia, betetze-maila eta arriskua

Arloa: Kudeaketa-kontrola / Barne-auditoria.

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Ba al dago berariazko zerbitzurik edo giza baliabiderik?				



2. Argi eta garbi zehaztutako prozedurak aplikatzen dira?				
3. Egiten al da kontrol-plan bat, eta ebaluatzen al da haren gauzatze maila?				
4. Egindako lanak dokumentatzen al dira? Egiten al dira emaitzaren txostenak?				
5. Lortutako emaitzak Zuzendaritzari edo arduradunei helarazten zaizkie?				
6. Aztertzen al da neurri zuzentzaileen aplikazioa?				
7. Egin al da kontrol-planik SEEPari dagokionez?				
8. Ziurtatzen al da neurri zuzentzaileak epe laburrean aplikatuko direla?				
9. Kudeaketa-txostenari buruzko baliozkotze-lan espezifikorik egiten al da?				
10. Kanpoko auditoreek nola baloratu dute egindako kudeaketa-kontrola?				
Puntuen gutzizko partziala.				
Puntuen gutzizkoa.				
Gehieneko puntuak.	40			
Puntu erlatiboak (puntuen gutzizkoa/gehieneko puntuak).				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.3 eranskina
Mugarri eta helburuen testa

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Ba al dago aurretiko esperientziarik helburuen araberako kudeaketan?				
2. Aplikatzen al dira mugarriak eta helburuak kudeatzeko prozedurak? (Xede horretarako, galdetegi bat dago III.A eranskinean)				
3. Jaso al da mugarriak eta helburuak kudeatzeko prestakuntzarik?				
4. Badago giza baliabide espezifikorik kudeaketarako eta jarraipeneko informazio-sisteman mugarri eta helburuen informazioa emateko?				



Puntuen guztizko partziala.				
Puntuen guztizkoa.				
Gehieneko puntuak.	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa/gehieneko puntuak).				

Oharra: 4 gehienezko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.4 eranskina Ingurumeneko kalteen testa

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al dira «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren betetzea baloratzeko prozedurak? (Xede horretarako, egiaztapen-zerrenda edo <i>check-list</i> eredu bat dago III.B eranskinean)				
2. Ba al dago eginkizun hori egiteko giza baliabide espezifikorik?				
3. Ez al dago aurretiazko gorabeherarik «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzeari dagokionez?				
4. Egiaztatu al da betearazpen-maila guztietan «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzeari buruzko azterketa egin dela?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuen guztizkoa				
Gehieneko puntuak	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehienezko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.5 eranskina Interes-gatazkaren, eta iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioaren testa

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Ba al dago «iruzurraren aurkako neurrien plan bat» eta plan horri esker erakunde betearazleak edo erabakitzaileak berma eta adieraz dezake, kasuan kasuko jarduketa-eremuan, funtsak arau aplikagarri jarraikiz erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihestu, detektatu eta zuzentzeko?				
2. Egiaztatu al da kasuan kasuko «iruzurraren aurkako neurrien plana»				



dagoela betearazpen-maila guztietan?					
Prebentzioa					
3. Ba al dago iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartu izanaren maila goreneko adierazpenik?					
4. Autoebaluazio bat egiten al da arrisku espezifikoak, horien inpaktua eta horiek gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta aldizka berrikusteko ?					
5. Zabaldu al da kode etiko bat eta ematen al da opari-politikari buruzko informaziorik?					
6. Ematen al da Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik?					
7. Egin al da interes-gatazkak tratatzeko prozedurarik?					
8. Betetzen al da interes-gatazkarik ezaren adierazpenik parte hartzen duten guztien eskutik?					
Detekzioa					
9. Ezarri al dira iruzur-adierazleak edo alerta-zeinuak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie horiek antzemateko moduan dauden langileei?					
10. Erabiltzen al dira datuen prospekzioa egiteko edo arriskuak puntuatzeko tresnak?					
11. Ba al dago biderik interesdunek salaketak aurkezteko ?					
12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratzen den unitaterik?					
Zuzenketa					
14. Ebaluatzen al da iruzurraren eragina eta jotzen al da sistemikotzat edo puntualtzat?					
GALDERA		BETETZE-MAILA			
		4	3	2	1
15. Erretiratzen al dira iruzurrak eragindako eta SEMak finantzatu edo finantzatu beharreko proiektuak edo horien zatiak?					
Jazarpena					
16. Jakinarazten al zaizkie gertatutakoak eta hartutako neurriak erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritzari					



arduradunari, dagokionaren arabera?				
17. Salatzen al dira zigortzeko moduko egitateak, dagokien kasuetan, estatueta edo Europar Batasuneko agintari publikoen edo fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuen guztizkoa				
Gehieneko puntuak	64			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehienezko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.6 eranskina

Estatuko laguntzen araubidearekin bateragarria den ikusteko eta finantzaketa bikoitza saihesteko testa Estatu-laguntzak

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al dira bere eremuan eman beharreko laguntzak jakinarazteko/aldez aurretik jakinarazteko/ beharra baloratzeko prozedurak, eta, hala badagokio, aldez aurreko jakinarazpena / komunikazioa egiteko, Estatuko Laguntzei buruzko Europar Batasuneko araudia errespetatzen dela bermatzeko? (Xede horretarako, egiaztapen-zerrenda edo <i>check-list</i> eredu bat dago).				
2. Ba al dago eginkizun hori egiteko giza baliabide espezifikorik?				
3. Ez al dago aldez aurreko gorabeherarik Estatuko laguntzei buruzko araudia betetzeari dagokionez?				
4. Egin al da betearazpen-maila guztiek Estatuko laguntzen araudia errespetatzen dutela jakiteko analisirik?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuen guztizkoa				
Gehieneko puntuak	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehienezko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena

Finantzaketa bikoitza

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al da prozedurarik bere kudeaketa-eremuan SEEPa gauzatzean finantzaketa bikoitza egon daitekeen baloratzeko? (Xede horretarako, egiaztapen-zerrenda edo <i>check-list</i> eredu bat dago).				
2. Ba al dago eginkizun hori egiteko giza baliabide espezifikorik?				



3. Ez al dago aurretiko gorabeherarik finantzaketa bikoitzari dagokionez (SEMaren edo Europako beste edozein funtsen esparruan)?				
4. Egin al da betearazpen-maila guztietan finantzaketa bikoitza egon daitekeela jakiteko analisirik?				
Puntu guztizko partziala				
Puntu guztizkoa				
Gehieneko puntuak	16			
Puntu erlatiboak (puntu guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

Arriskuaren zenbatespena: Balorazio-taula

Arloa	(a) puntu erlatiboak	(b) Haztapan-faktorea	(c) Esleitutako balioa
Kudeaketa-kontrola.		% 18	
Mugarriak eta helburuak.		% 34	
Ingurumenaren gaineko kalteak.		% 12	
Interes-gatazka, iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioa.		% 12	
Estatuko laguntzen araubidearekiko bateragarritasuna.		% 12	
Finantzaketa bikoitza saihestea.		% 12	
Guztira.	E/A	% 100	

Oharra: Erreferentzia-balioak.

Arrisku txikia:	Esleitutako balioa, guztira ≥ 90
Arrisku ertaina:	Esleitutako balioa, guztira ≥ 80
Arrisku handia:	Esleitutako balioa, guztira ≥ 70

Esleitutako guztizko balioa kalkulatzeko, arlo bakoitzari esleitutako balioak (c) batu behar dira. Balio hori lortzeko, kasuan kasuko testean lortutako puntu erlatiboak (a) haztapan-faktorearekin (b) biderkatu behar dira».

Bost. Aldatu egiten da «IV. eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)», eta honela geratzen da idatzita:

«Bandera gorriak balizko iruzur baten alarma-seinaleak, aztarnak edo zantzuak dira. Bandera gorri batek ez du nahitaz esan nahi iruzurra dagoenik, baizik eta jardueraren jakin batek arreta gehigarria behar duela, balizko iruzur bat ezeztatze edo baieztatze.

Jarraian, bandera gorrien adibideen zerrenda ez-zehatz bat ageri da, iruzurrezkoak izan daitezkeen jardueren tipologiaren arabera sailkatuta.

1. IRUZURRA KONTRATUETAN ETA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

1.1. Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak

**DESKRIBAPENA:**

Eroskeria eta legez kanpoko komisioak honako hau dira: «baliozko gauzaren» bat ematea edo jasotzea, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean.
- Agirietan jaso gabeko aldaketak kontratuetan, edo kontratu-aldaketak maiz, kontratuon balioa handitzeko.
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Enplegatu kontratatzailearen batek kanpoko negozio ezkutu bat du.
- Kontratastak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Enplegatu kontratatzailearen batek uko egin dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Enplegatu kontratatzailearen batek ez du interes-gatazkarik ezaren adierazpenik aurkeztu edo bete.

1.2. Interes-gatazka**DESKRIBAPENA:**

Erakunde kontratastako langile batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Enplegatu kontratatzailearen batek ez du interes-gatazkarik ezaren adierazpenik aurkeztu edo bete.
- Enplegatu kontratatzailearen batek aparteko negozio bat zuzentzen duela dirudi, edo lehiara aurkez daitekeen sozietate batean lan egiten duten senideak ditu.
- Prozedura negoziatua aukeratu da, nahiz eta prozedura ireki bidez egin daitekeen.
- Kontratastaren batek probetxua atera dio azaldu gabeko edo ohiz kanpoko mesedekeria bati. Etengabe onartzen da lan garestia, kalitate eskasekoa, etab.
- Enplegatu kontratatzailearen batek uko egin dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten artean harreman estua dago.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Litzitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo

goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.

- Kontratazio-organoko langileren batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin du, kontratazio-organoan sartu aurretik.

1.3. Lizitatzailerik baten alde moldatutako zehaztapenak eta baldintza-agiriak

DESKRIBAPENA:

Baldintza-agirik lizitatzailerik jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitatzailerik bakar batek bete ditzakeenak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaintza bakarra aurkeztu da edo lizitaziorako hautagai diren proposamenen kopurua ohi baino nabarmen txikiagoa da.
- Baldintza-agirietako zehaztapenak aurreko antzeko deialdietakoak baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Zehaztapen batzuk ez dira ohikoak edo oso arrazoizkoak.
- Aparteko antzekotasuna dago prozeduraren baldintza-agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen artean.
- Beste lizitatzailerik batzuen kexak daude.
- Hornitzaile berari adjudikazio asko egin zaizkio.
- Kontratatzailerik eta lizitatzailerik batzuen artean harreman pertsonalak daude.
- Botere adjudikatzailerik marka jakin baten produktu bat definitzen du, produktu generiko baten ordez.

1.4. Kolusiozko lizitazioak

DESKRIBAPENA:

Eremu geografiko edo eskualde bateko edo industria-sektore jakin bateko kontratista batzuek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitaziorako kolusio-mekanismoen bidez.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Adjudikaziodunak lizitatzailerik galtzailerik azpikontratatu ditu.
- Lizitatzailerik guztiek prezio altuak eskaini dituzte etengabe.
- Eskaintza irabazlearen prezioa handiegia da aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, industriako antzeko obra edo zerbitzuetakoekin edo merkatuko erreferentziako prezioekin alderatuta.
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaitsi dira prozeduran lizitatzailerik berri batzuek parte hartzean.
- Adjudikaziodunak eskualdearen, lan motaren eta obra motaren arabera banatuta/txandakatuta daude.
- Ezohiko eskaintza-ereduak daude. Adibidez, eskaintzek beherapen-ehuneko berdin-berdinak dituzte, eskaintza irabazlea ozta-ozta dago



prezio onargarrien atalasearen azpitik, kontratuaren aurrekontura doitzen da eskaintza, eskaintzen prezioak altuegiak dira, antzekoegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatugabeak, etab.

1.5. Datuak filtratzea

DESKRIBAPENA:

Kontratazioaz, proiektuaren diseinuaz edo eskaintzen ebaluazioaz arduratzen diren langileek informazioa isilean ezagutarazten dute, lizitatzailer bati proposamen tekniko edo finantzario bat egiten laguntzeko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaintzaren bat behar baino lehenago ireki da.
- Eskaintza ekonomiko irabazlea doi-doi dago hurrengoaren azpitik.
- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da, adibidez: epeak ez dira aplikatzen.
- Eskaintza berantiarrak onartu dira.
- Aurkeztutako azken eskaintza baxuena da.
- Eskaintza guztiak atzera bota dira, eta kontratua berriro atera da lizitaziora.

1.6. Aurkeztutako eskaintzak manipulatzeko

DESKRIBAPENA:

Kontratazio-langileek jasotako eskaintzak manipulatzeko, kontratista jakin bat hautatuko dela ziurtatzeko (eskaintzak aldatuz, «galduz», zehaztapenetan ustez egindako akatsengatik baliogabetuz, etab.).

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaintzak jaso ondoren aldatu izanaren zantzuak daude.
- Lizitatzaileraren kexak daude.
- Kontrolik eza eta/edo lizitazio-prozedura desegokiak daude.
- Akatsengatik eskaintzak baztertu dira.
- Gaitasuna duen lizitatzaileraren bat zalantzazko arrazoiengatik baztertu dute.
- Prozedura ez da huts deklaratu, eta berriro deitu da, nahiz eta eskatutako gutxienerako kopurua baino eskaintza gutxiago jaso.

1.7. Gastua zatitzea

DESKRIBAPENA:

Enplegatu kontratatzaileek erosketak bi eskaera edo kontratutan edo gehiagotan banatzen dute, lehia edo goi-mailako zuzendarien berrikuspenak saihesteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Antzeko objektua duten bi erosketak edo gehiago ikusi dira, adjudikaziodun berari eginak, zuzenerako adjudikazio-prozedurak erabili ahal izateko onartutako mugen edo publikitate-atalaseen



azpikoak.

- Lizitazioen publizitatea egiteko betebherraren atalasearen azpitik ozta-ozta dauden erosketa sekuentzialak daude.
- Erosketak arrazoirik gabe bereizi dira, adibidez: eskulanerako eta materialetarako kontratu bereziak egin dira, eta biak lizitazio irekiko atalasean azpitik daude.

1.8. Gehigarritasun-printzipioa ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Kontratua bi funtsen edo gehiagoren bidez finantzatu da eta, ondorioz, irabaziak ditu edo gainfinantzatuta dago.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eragiketen finantzaketa bateratua gehiegizkoa da.
- Zenbait finantzatzaile bateratuk finantzatzen dute proiektu bera.

1.9. Kontratuaren formalizazioan urraketak

DESKRIBAPENA:

Kontratuaren formalizazioan irregulartasunak daude; hau da, ez dator guztiz bat lizitazioaren baldintzekin edo adjudikazioaren baldintzak aldatu egin dira.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Formalizatutako kontratuak adjudikazioaren baldintzak aldatu ditu.
- Kontratazio-organoak eta adjudikaziodunak kontratuaren sinatzea atzeratu dute arrazoirik gabe.
- Formalizazio-iragarkia ez da argitaratu.

1.10. Kontratuen nahasketa

DESKRIBAPENA:

Antzeko hainbat eskaera dituen kontratista batek kostu berberak kargatzen ditu, eta gainfakturazioa eragiten du.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Antzeko fakturak aurkezten dira zeregin edo kontratu desberdinen esparruan.
- Kontratista berak denboraldi berean zeregin bat baino gehiagorengatik fakturatzen du.

1.11. Kostuak bidegabe lotzea

DESKRIBAPENA:

Kontratista batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo kontratu bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz. Lan-kostuak bidegabe kargatzeko aukera gehiago dago material-kostuak bidegabe kargatzeko baino; izan ere, teorikoki, langile baten lana edozein kontratutan karga daiteke.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Kontratuaren aurrerapenarekin bat ez datozen lan-kargak sartu dira.
- Ordutegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak sartu dira.
- Ordutegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Ezinezkoa da ordu-fitxak aurkitzea.
- Material-kostu berak kontratu bati baino gehiagori egotzen zaizkio.
- Zeharkako kostuak zuzeneko kostu gisa sartu dira.

1.12. Prezioak modu desegokian finkatzea**DESKRIBAPENA:**

Kontratistak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak eman ez eta kontratua garestitzen denean gertatzen da prezio-finkatze desegokia.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Kontratistaren batek uko egin dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, haiek entregatzea atzeratu du edo ez da aurkezteko gai izan.
- Kontratistaren batek dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkeztu du.
- Prezioen finkatzeari buruzko informazioa zaharkituta dago.
- Prezioek altuak dirudite antzeko kontratuetako, prezio-zerrendetako edo sektoreko batez besteko prezioen aldean.

1.13. Kontratuaren zehaztapenak ez betetzea**DESKRIBAPENA:**

Kontratuaren zehaztapenak bete ez baina betetzearen itxura egiten duten kontratistek iruzurra egiten dute.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Kalitatea eta/edo emaitzak txarrak dira, eta/edo erreklamazio asko daude.
- Egiaztapenen emaitzak ez datoz bat kontratuaren zehaztapenekin.
- Probak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira.
- Kontratistaren gastuen erregistroetan frogatzen da, adibidez, ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez daukala eta ez duela errentan hartu behar zen ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.

1.14. Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak**DESKRIBAPENA:**

Kontratista batek nahita aurkezten ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratatzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiriak falta dira.
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzakoa da edo ez dago.
- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin dira justifikatu.
- Kontratataren erregistroek ez dute jasotzen lana egin denik edo beharrezko gastuak egin direnik.
- Prezioak, zenbatekoak, produktuen deskribapenak edo baldintzak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat kontratuaren objektuarekin, eskaerarekin, ordainagirien erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin.
- Zenbateko bereko faktura asko daude.
- Elkarren segidako azpikontratazioak egin dira.
- Ordainketak eskudirutan egin dira.
- Paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei ordainketak egin zaizkie.

1.15. Zerbitzu fantasmak emaileak**DESKRIBAPENA:**

Kontralistek enpresa fantasmak sortzen dituzte eskaintza osagarriak kolusioan aurkezteko, kostuak puzteko edo gezurrezko fakturak sortzeko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Kasuren batean, zerbitzu-hornitzaileen helbideak ez dira aurkitzen.
- Kasuren batean, zerbitzu-hornitzailea ez da ageri enpresen direktorioetan, Interneten, Googlen edo beste bilatzaile batzuetan, etab.
- Zerbitzu-emaileak aurkeztutako zerrendako helbideak edo telefono-zenbakiak faltsuak dira.
- Paradisu fiskal batean inskribatutako enpresa bat baliatzen da.

1.16. Produktuak ordezkatea**DESKRIBAPENA:**

Erosleak jakin gabe, kontratuan zehaztutako produktuak kalitate apalagoko beste batzuekin ordezten dira.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Alde nabarmena dago zenbatetsitako kostuen eta materialen benetako kostuen artean.
- Espero zen produktuen itxura ez dator bat benetakoarekin.
- Ezohiko enbalajeak edo generikoak erabili dira. Ohikoak ez diren bilgarriak, koloreak edo marrazkiak, adibidez.
- Aldeak daude produktuen identifikazio-zenbakien eta argitaratutako en, katalogoan daudenen edo zenbaki-sistemakoen



artean.

- Funtzionamendu-probetan hautemandako akatsen kopurua batezbestekoa baino handiagoa da, piezak ohi baino lehenago ordezkatu behar dira edo mantentze-lanen edo konponketen kostuak handiak dira.
- Betetze-ziurtagiriak kualifikatu gabeko edo ziurtatu gabeko pertsona batek sinatuta daude.
- Serie-zenbakiak ez dira ohikoak edo ezabatuta daude, eta/edo serie-zenbakiak ez datoz bat fabrikatzailearen legezko zenbaki-sistemarekin.
- Fakturako inbentarioan agertzen diren produktuen zenbakiak edo deskribapenak ez datoz bat eskaeran aurreikusitakoarekin.

1.17. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen auditoria-aztarnari buruzko Europako, nazioko eta/edo autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Erakundeak saihestu egin du kontratazioa behar bezala dokumentatzea auditoria-aztarna bermatu ahal izateko.
- Kontratazioan ez da aipatzen eragiketaren ondoriozko gastuak nola dokumentatu behar diren.
- Ez da bete dokumentuak gordetzeko betebeharra.

2. IRUZURRA DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZETAN

2.1. Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak

DESKRIBAPENA:

Eroskeria eta legez kanpoko komisioak honako hau dira: «baliozko gauzaren» bat ematea edo jasotzea, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Ebaluazio Batzordeko kide baten eta laguntzaren edo dirulaguntzaren onuradun baten artean harreman sozial estua dago.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu batek uko egin dio dirulaguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu baten ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitu da.
- Onuradunak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Dirulaguntzak edo laguntzak ematen dituen enplegaturen batek ez du

interes-gatazkarik ezaren adierazpenik aurkeztu edo bete.

2.2. Interes-gatazka

DESKRIBAPENA:

Dirulaguntzak edo laguntzak ematen dituen erakundeko kide batek dirulaguntza batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Laguntza baten hartzailearen batek azalpenik gabeko edo ohiz kanpoko mesedekeria bati etekina atera dio.
- Enplegatu emailearen batek aparteko negozio bat zuzentzen duela dirudi, edo deialdira aurkez daitekeen sozietate batean lan egiten duten senideak ditu.
- Enplegatu emailearen batek ez du interes-gatazkarik ezaren adierazpenik aurkeztu edo bete.
- Enplegatu emailearen batek uko egin dio dirulaguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Laguntzak emateaz arduratzen den enplegatuaren baten aberastasuna edo bizi-maila modu ulertezin edo bat-batekoan handitu da.
- Deialdiko dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsona edo goi-mailako funtzionario bat dokumentazioa idazten laguntzeko kanpoko enpresa bat kontratatzen tematu da, beharrezkoa ez bada ere.

2.3. Zehaztapen itunduak

DESKRIBAPENA:

Deialdiek lizitatzailer jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitatzailer bakar batek bete ditzakeenak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskatzaile bakar batek edo gutxi batzuek erantzun diote eskaintzen deialdiari.
- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkeztu dituzte.
- Zehaztapenak aurreko antzeko deialdietan baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Zehaztapen batzuk ez dira ohikoak edo oso arrazoizkoak.
- Onuradun berari emakida asko eman zaizkio.
- Emate-prozesuan zehar, harreman edo lotura pertsonalak daude laguntza ematen duten langileen eta eskatzaile batzuen artean.

2.4. Datuak filtratzea

DESKRIBAPENA:

Laguntza/dirulaguntzak emateaz edo eskabideak ebaluatzeaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa filtratzen dute eskatzaile bati mesede egiteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:



- Emate-prozeduren kontrola eskasa da. Adibidez: epeak ez dira aplikatzen.
- Epez kanpoko eskaerak onartzen dira.
- Enplegatu batek ezohiko jokabidea du; emate-prozeduraren inguruko informazioa behin eta berriz eskatzen du, prozeduraren arduraduna izan ez arren.
- Eskaera egiteko aldian, onuraduna emakidaren ardura duten langileekin komunikatu da modu pribatuan, posta elektronikoz edo beste bitartekoren baten bidez.

2.5. Aurkeztutako eskaintzak manipulatzeko

DESKRIBAPENA:

Kontratazioko langileek jasotako eskaerak manipulatzeko dituzte eskatzaile jakin bat aukeratuko dela ziurtatzeko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaeraren bat baliogabetu da akatsak izategatik.
- Baldintzak betetzen dituen eskatzailearen bat baztertu da, zalantzarik direla medio.
- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkeztu dituzte.
- Emate-prozedurak prozedura eskas eta desegokien pean jarri dira.
- Jasotako eskaerak, dokumentu ofizialak edo hartze-ziurtagiriak aldatu izanaren zantzuak daude.
- Ebaluazio-batzordeko kideek ez dute aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko behar den ezagutzarik eta pertsona bakar baten mende daude.

2.6. Gehigarritasun-printzipioa ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Onuradunak funts beretik hainbat erakunderen laguntzak jasotzen ditu eta, ondorioz, irabaziak ditu edo gehiegizko finantzaketa jasotzen du.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Deialdiaren oinarri arautzaileek ez dute adierazten Estatuko laguntza den, hala badagokio.
- Deialdiak ez du zehazten laguntzak beste finantzaketa-mota batzuekin duen bateraezintasuna.
- Ez dago hirugarrenengandik jasotako finantzaketaren oinarri den dokumentaziorik.
- Onuradunak ez du gastu-kontrolik eragiketari egotzitako gastuak eta sarrerak identifikatzeko.
- Eragiketen baterako finantzaketa gehiegizkoa da.
- Proiektu bera hainbat finantzatzailek finantzatzen dute.
- Hirugarrenek emandako finantzaketaren izaera finalista falta da, eta



ez dago finantzaketa banatzeko irizpiderik.

- Onuradunak ez ditu kontrolatzen proiektuari esleitutako mugarriak eta/edo helburuak.

2.7. Kostuak bidegabe lotzea

DESKRIBAPENA:

Onuradun batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo dirulaguntza bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Proiektuaren aurrerapenarekin bat ez datozen lan-kargak sartu dira.
- Ordutegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak sartu dira.
- Ezinezkoa da ordu-fitxak aurkitzea.
- Material-kostu berak proiektu bati baino gehiagori egotzi zaizkio.
- Zeharkako kostuak zuzeneko kostu gisa sartu dira.

2.8. Prezioak modu desegokian finkatzea

DESKRIBAPENA:

Onuradunak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak eman ez eta proiektua garestitzen denean gertatzen da prezio-finkatze desegokia.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Onuradunen batek uko egin dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, entrega atzeratu du edo ez da aurkezteko gai.
- Onuradunen batek dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkeztu du.
- Prezioen finkatzeari buruzko informazioa zaharkituta dago.
- Prezioek altuak dirudite antzeko kontratuetako, prezio-zerrendetako edo sektoreko batez besteko prezioen aldean.

2.9. Deialdiaren zehaztapenak ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Deialdiko zehaztapenak bete ez baina betetzearen itxura egiten duten onuradunek iruzurra egiten dute.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Onuradunak ez ditu funtsak dirulaguntzaren araudian ezarritako helbururako erabili.
- Kalitatea eta emaitzak txarrak dira, eta erreklamazio asko daude.
- Probak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira.
- Proben eta ikuskapenen emaitzak ez datoz bat proiektuaren zehaztapenekin.

- Onuradunaren gastuen erregistroetan frogatzen da, adibidez, ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez daukala eta ez duela errentan hartu behar zen ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.

2.10. Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak

DESKRIBAPENA:

Onuradun batek nahita aurkeztu ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratatzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiriak falta dira.
- Faktura batek baino gehiagok zenbateko bera, faktura-zenbaki bera, data bera, etab. dute.
- Eskatzaileek adierazpen faltsuak aurkeztu dituzte eskabideetan, hala nola sinatutako aitortpenak, finantza-txostenak, konpromisoak, eta abar.
- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin dira justifikatu.
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzazkoa da edo ez dago.
- Onuradunaren erregistroetan ez dago jasota lana egin denik edo beharrezko gastuak egin direnik.
- Prezioak, zenbatekoak, produktuen deskribapenak edo baldintzak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat laguntza/dirulaguntza ematearen objektuarekin, eskaerarekin, ordainagirien erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin.
- Elkarren segidako azpikontratazioak egin dira.
- Ordainketak eskudirutan egin dira.
- Paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei ordainketak egin zaizkie.

2.11. Lehia mugatzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu behar adina zabaldu oinarri arautzaileak edo deialdia; ez dira argi zehaztu laguntzen onuradunek edo hartzaileek bete beharreko baldintzak; ez dira errespetatu ezarritako epeak edo ez dira argitaratu aplikatzekoak diren baremoak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Oinarri arautzaileak eta deialdia ez dira zabaldu legez eskatutako publikitate- eta gardentasun-printzipioak betez.
- Onuradunek bete behar dituzten baldintzak ez daude argi.
- Eskabide batzuk atzera bota dira, ustez epez kanpo entregatzeagatik, epe barruan aurkeztu diren arren, edo eskabide batzuk epez kanpo aurkeztu arren onartu egin dira.



- Deialdia arautzen duten oinarrietan, ez dira jaso eskaerak baloratzeko baremoak.
- Laguntzen onuradunak edo hartzaileak ez du betetzen hornitzaileekin negoziatu behar izanez gero lehia bermatzeko betebeharra.

2.12. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen auditoria-aztarnari buruzko Europako, nazioko eta/edo autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Erakundeak saihestu egin du eragiketa behar bezala dokumentatzea auditoria-aztarna bermatu ahal izateko.
- Deialdian ez da aipatzen eragiketaren ondoriozko gastuak nola dokumentatu behar diren.
- Deialdian gastu hautagarrien definizio argi eta zehatza falta da, bai eta dokumentuak aurkezteko betebeharra jasotzea ere.
- Proiektuetan kostuak kalkulatzeko aplikatu behar den metodoa falta da deialdian.

3. IRUZURRA HITZARMENETAN

3.1. Hitzarmenaren edukia kontratuen berezko prestazioak dira

DESKRIBAPENA:

Hitzarmenak kontratazio-prozedura bat saihesteko edo tresna juridiko horren baliozkotasun-baldintzak saihesteko egitea.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Hitzarmenaren edukia kontratuen berezko prestazioak dira.
- Hitzarmenaren edukiak eskumenaren titulartasuna lagatzea dakar berekin.
- Hitzarmenak erakunde pribatuekin egiten dira.

3.2. Hitzarmenaren prozedura edo legezko baldintzak ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Hitzarmen bat horretarako legez ezarritako prozedura bete gabe egitea, edo legezko izapide edo betekizun jakin batzuk bete gabe.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Nahitaezko izapideak falta dira.
- Lege-eskumenik eza dago.
- Hitzarmenaren xede diren jarduketak egin gabe utzi dira bidezko arrazoirik gabe, edo finantza-ekarpenak ez dira likidatu.
- Hitzarmenaren publizitate- eta komunikazio-betebeharrak ez dira bete.
- Finantza-ekarpenak ez dira egokiak.

3.3. Interes-gatazkak

**DESKRIBAPENA:**

Hitzarmena onartu edo sinatzen duten langileek beren eginkizunak modu inpartzial eta objektiboan ez betetzeko arriskua dago, arrazoi hauengatik: familia, afektibitatea, kidesun politiko edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi zuzen edo zeharkako.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Hitzarmen batzuk behin eta berriz egiten dira.
- Hitzarmena sinatu duten alderdien artean loturaren bat dagoen zantzuak daude.

3.4. Entitate laguntzaileak hautatzean lehia mugatzea**DESKRIBAPENA:**

Erakunde laguntzaileekin dirulaguntza bat bideratzeko egindako hitzarmenen kasuan, zuzenbide pribatuko erakunde laguntzailea ez da finkatutako printzipioei jarraituz aukeratu.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Zuzenbide pribatuko erakunde laguntzailea hautatzean, konkurrentzia bermatzeko betebeharra eta aplikatu beharreko gainerako printzipioak urratu dira.

3.5. Lehia mugatzea, hitzarmena hirugarrenek gauzatzen dutenean**DESKRIBAPENA:**

Erakunde laguntzaileekin dirulaguntza bat bideratzeko egindako hitzarmenen kasuan, erakunde laguntzaileak ez du bermatzen hornitzaileak norgehiagoka-prozesu baten bidez hautatuko direla.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Ez da bete konkurrentzia bermatzeko betebeharra lankidetzahitzarmena hirugarrenek gauzatu dutenean.

3.6. Auditoria-aztarna galtzea**DESKRIBAPENA:**

Erakundeak ez ditu betetzen auditoria-aztarnari buruzko Europako, nazioko eta/edo autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Ez dago auditoria-aztarnarik.
- Ez da bete dokumentuak gordetzeko betebeharra.
- Ez da bermatu azken hartzaileek Europako erakundearen kontrolen pean jartzeko duten konpromisoa.

4. IRUZURRA NORBERAREN BALIABIDEEI EGINDAKO MANDATUETAN**4.1. Bitarteko propioei egindako enkargua ez justifikatzea****DESKRIBAPENA:**

Ez da justifikatu bitarteko propioari enkargua egitea irtenbiderik egokiena eta eraginkorra denik finantza-kudeaketa onaren eta legezketasunaren ikuspegitik.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioetara jotzeko eman diren arrazoiak ez dira nahikoak.
- Bete beharreko premien eta enkarguaren xedearen justifikazioa falta da.
- Ez dago enkarguak bitarteko propioei egiteko prozedurarik.
- Antzeko hainbat jarduera bitarteko propioekin egiten dira aldi berean edo urtero jarduera berdinak egiten dira.
- Garbi dago baliabide batzuk behar baino gutxiago erabiltzen direla eta bitarteko propioei egiten zaizkien enkarguetan sartzen diren proiektu edo jardueretara bideratu litezkeela.

4.2. Bitarteko propioak ez betetzea bitarteko propio izateko baldintzak**DESKRIBAPENA:**

Bitarteko propio pertsonifikatua izateko baldintzak ez dira betetzen, edo bitarteko propioak izaera hori galdu du.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioak ez ditu betetzen bitarteko propio izateko baldintzak.
- Bitarteko propioa ez da Kontratazio Plataforman argitaratu.

4.3. Justifikaziorik eza bitarteko propioaren hautaketan**DESKRIBAPENA:**

Ez da behar bezala justifikatu zergatik hautatu den enkargua egin zaion bitarteko propioa, eta horrek eragina izan dezake enkargua ez betetzeko, finantza-kudeaketa desegokia egiteko, iruzurra egiteko edo ustelkeria egiteko arriskuan baldin eta bitarteko propio desegoki bat aukeratu bada.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioen zerrenda eguneratua falta da.
- Enkargua egin zaion bitarteko propioaren xedea ez dator bat agindutako jarduera motarekin.
- Enkargu-kontzentrazioa dago bitarteko propio batean.

4.4. Tarifak eta kostuak oker aplikatzea**DESKRIBAPENA:**

Aurrekontua egitean tarifak eta kostuak ez justifikatzea edo oker aplikatzea.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Aurrekontua egitean aplikatutako tarifak oker aplikatu dira.
- BEZa aplikatu zaie zerga horri lotu gabeko eragiketei.
- Ez dago organo eskudunak onartutako tarifarik edo tarifak ez daude



eguneratuta.

- Aurrekontua egitean, tarifak aplikatzen zaizkien unitateen zenbatespen okerra egin da.
- Azpikontrataturako jarduerak ez dira konpentsatu.

4.5. Azpikontratazio-mugak ez betetzea eta lehia mugatzea

DESKRIBAPENA:

Bitarteko propioak egindako azpikontratazioak ez ditu betetzen SPKLaren 32.7 artikuluan ezarritako baldintzak, eta horrek lehia mugatzea eragin dezake, lizitazio publiko bat egin beharrean bitarteko propioari egin baitzaio enkargua.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Enkargua egin duen erakundeari ez zaio bitarteko propioak egindako azpikontratazioaren berri eman.
- Azpikontrataturako jarduerak enkarguaren % 50eko muga gainditu dute.
- Azpikontrataturako prezioak tarifa aplikagarria gainditu du.
- Bitarteko propioak kostu errealean fakturatu ez dituen prezio baxu nabarmenak lortu ditu lizitazio-prozeduran.
- Bitarteko propioak beti hornitzaile berberak azpikontratatu dituzte.

4.6. Enkarguaren xede diren prestazioak osorik edo zati batean ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Produktuak edo zerbitzuak ez dira osorik entregatu eta/edo ez dute espero zen kalitatea; justifikatu gabeko atzerapenak izan dituzte eta/edo ez dute aurreikusitako administrazio-premia asebetetzen.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Entrega-epeetan justifikaziorik gabeko atzerapenak daude.
- Produktu guztiak entregatzea falta da edo ez da zerbitzua eman.
- Entregatu diren produktu edo zerbitzu batzuek ez dute esperotako kalitatea erdietsi.
- Enkarguaren prestazioak ez datoz bat ase beharreko premia administratiboarekin.

4.7. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen auditoria-aztarnari buruzko Europako, nazioko eta/edo autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Ez dago auditoria-aztarnarik.
- Dokumentuak kontserbatzeko betebeharra urratu da.
- Ez da bermatu azken hartzaileek Europako erakundearen kontrolen pean jartzeko duten konpromisoa.

BANDERA GORRIAK EGIAZTATZEKO ZERREDA

Prozedura (espedientearen identifikazioa)

Betetze-data.

Bandera gorriaren deskribapena	Detektatu al da prozeduran erakundeak definitutako bandera gorririk?			Oharrak	Hartutako edo hartu beharreko neurriak
	Bai	Ez	Ez da aplikagarria		

Bete duenaren izen-abizenak eta lanpostua.

Sinadura».

Sei. Aldatu egiten da «V. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)», eta honela geratzen da idatzita:

«V. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)

Azpiproiektua: (zenbakia eta izendapena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izendapena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak/dutenek, kudeaketa- edo betearazpen-prozesuan parte hartzen duten aldetik, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa. Honako honen berri dudala adierazten dut:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua ("Interes-gatazka") honakoa ezartzen du: «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik.



2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, bai eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatuak guztientzat tratua berdina dela bermatzea ere.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeraren batean daudenean», zehazki egoera hauetan:
 - a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritarako.
 - c) Aurreko atalean aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezina nabarmena izatea.
 - d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
 - e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Honako hau adierazten dut:

1. Ez nagoela/gaudela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez nagoela/gaudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena. Honako hau adierazten dut:

1. Interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari/hautaketa-organoari luzapenik gabe jakinarazteko konpromisoa hartzen du.
2. Konfidentziasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen

diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Laugarrena. Honako hau adierazten dut:

1. Badakit interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diedala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)».

Zazpi. «VIII. Eranskina - Ordainketa-eskaerako kudeaketa-adierazpena», VII. eranskin bihurtzen da, eta «IX. Eranskina - Kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioaren autoebaluazioa», VIII. eranskin bihurtzen da, biak laugarren puntuan egindako aldaketaren ondoren.

Zortzi. «X. eranskina - Interes-gatazkarik ezaren deklarazioaren gutxieneko edukia», IX. eranskin bihurtzen da, laugarren puntuan egindako aldaketaren ondoren. Eranskin hori aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena gutxieneko edukia

Azpiproiektua: (zenbakia eta izendapena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izendapena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako kontratazio-/dirulaguntza-prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak/dutenek, espedientea prestatu edo izapidetzeko prozesuan parte denez/direnez, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa.

Jakinak ditut honako hauek:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») honakoa ezartzen du: «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kideetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin zuen, Espainiako ordenamendu juridikora egokitzeko.

Lege horren 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») honela definitzen du interes-gatazka: «Kontratazio-organoaren zerbitzura dauden langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean parte hartzen dutenek edo prozeduraren emaitzan eragina izan dezaketenek, zuzenean edo zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala izatea, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar dezakeena».

3. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatu aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».

4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:

– Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, baldin eta aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa badago.

– Erlazioak edo loturak identifikatzeko aldera, tresna horrek, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) III. artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen benetako titulartasuneko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-baseetan daudenak, bai eta notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere.

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatu dudanean, eta eskura dudan informazioaren arabera, ez nago interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntzak lizitzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeenik.

Hirugarrena.

Konpromisoa hartu dut kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, baldin egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arazoiren berri badaki, prozeduraren edozein unetan.

Laugarrena.

Badakit interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboak eta judizialei aurre egin beharko diedala.

Bederatzi. «XI. Eranskina - Interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredia», X. eranskin bihurtzen da, laugarren puntuan egindako aldaketaren ondoren. Eranskin hori aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Interes-gatazkarik eza egiaztatzeko eredia

Azpiproiektua: (zenbakia eta izendapena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izendapena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertu dugu (MINERVA tresna informatikoaren bidez), urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan, agindu horrek baititu araututa Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu. Agindu hori 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen. Bada, arriskua aztertu ondoren, bandera gorri bat detektatu denez (bandera gorriaren deskribapena, bandera hori jarrazi duten eskatzaileen zerranda), berriro diot ez nagoela prozeduran nire jarduketa objektiboa kolokan jar dezakeen interes-gatazka eragin dezakeen inongo egoeratan.

Hamar. «XII. Eranskina - Lehia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan interes-gatazkaren arriskua aztertze eskabideak hautatzeko arauak» izeneko, XI. eranskin bihurtzen da, laugarren puntuan egindako aldaketaren ondoren.

Hamaika. Edukien aurkibidearen «9. Eranskinak» paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«9. Eranskinak

9.1. I. eranskina - Iruzurraren aurkako borrokaren adierazpen instituzionala

9.2. II. eranskina - Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea

9.3. III. eranskina.- Etika- eta jokabide-kodea

9.4. IV. eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)

9.5. V. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)

9.6. VI. eranskina - Balizko interes-gatazka prebenitu, detektatu eta kudeatzeko dokumentua

9.7. VIII. eranskina.- Kudeaketa-aitorpena ordainketa-eskaeran

9.8. IX. eranskina.- Kalte Nabarmenik Ez Egiteko Printzipioaren Autoebaluazioa – DNSH

9.9. X. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena gutxieneko edukia

9.10. XI. eranskina - Interes-gatazkarik eza egiaztatzeko eredia

9.11. XII. eranskina - Konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan, interes-gatazkaren arriskua aztertze hartuko diren eskaerak hautatzeko arauak

9.12. Termino eta definizio nagusien glosarioa

Glosarioa



Termino teknikoen definizioa».

Bigarrena. Agintzea aldaketa hori sar dadila aipatutako planaren dokumentuan, zeina argitaratuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren webgunean (<https://www.euskadi.eus>), Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren eta datu-bistaratzeeen atarian (<https://www.gardena.euskadi.eus>) eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren web-orrian (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ogasan-sail/>).

Pedro María Azpiazuriarte
EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUA